



## PILLCAM PATENCY KAPSULA: JARRAIBIDEAK PAZIENTEAREN TZAT

Proba hau egiteko ez duzu baraurik egon behar, ezta beste prestaketa motarik ere.

Kapsula hau erabiltzen da hestean zehar bidea dagoela ziurtatzeko, kapsula endoskopiko diagnostikoa egiteko aurreko urrats gisa.

Kapsula diagnostikoaren neurriaren antzeko kapsula emango zaizu, baina degradagarria.

Nahiko biderik egon ezean, degradatzen joango da kalterik sortu gabe, eta xafla ñimiñoa geratuko da; hori hestean zehar modu naturalean pasatuko da eta gorzkietan kanporatuko da.

Zeuk egiaztatu behar duzu, sabel-huste bakoitzaren ondotik, kapsula kanporatu duzun ala ez, eta kanporatuz gero, garbi eta horretarako eman zaizun ontzian ekarri behar duzu, astelehenetik ostiralera, 8etatik 9etarako ordutegian.

Kapsula barruan geratu bada, medikuak beste proba batzuk gomendatu ditzake, kapsularen kokapena egiaztatzeko eta egoeraren jarraipena egiteko.

Prozedurak irauten duen bitartean sabel-minik, goragalerik edo okadarik nabaritzen baduzu, Larrialdietara joan behar duzu.

Zalantzarik izanez gero, 945 00 72 40 telefonora dei dezakezu, 8etatik 15etara bitartean.

